



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza



Ostirala
2008-05-30

VIURTEA 1.447.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO

OMAR FARUK TEKBILEK MUSIKARIA

«Sentiarazten dudanean lortzen dut musika egitea; maitasuna bezala da»

TOLOSA Musikari turkiarraren kontzertua izango da bihar Leidorren, Mundua Tolosan eta Aste Turkiarraren baitan

NAHASKETA «Turkiako musika tradizionala da batik bat, baina Mendebaldeko 'pozo' pixka bat ere badu», dio 3



L.T.

AHTren aurkako manifestaziorako deia egin dute

AZPIEGITURAK Bihar Donostian egingo den manifestazioan parte hartzeko eskatu die herritarrei eskualdeko AHT Gelditu! elkarlanak 6

Atzo hasi zen hamargarren Amarozko Antzerkiaren Astea 4

AGUSTIN ARANBURU
'LEITZAKO IHOTEK'EN EGILEA

«Leitzako ihoteek aldaketa handia izan dute» 5

Formamos personas, Creamos profesionales Personak hezitzen, Profesionalak lantzen

Curso de acceso a ciclos superiores (A-D) (Mañana-Tarde) / Gai-mailetan hezituta zibernetikaren sartze (Asteleku) (A-D) (Gotoz-Armatzketak)

CS Química ambiental (A-D) / GZ Ingarupeko kimika (A-D)

Electromecánica (A-D-AE) / CM Equipos e instalaciones electrodomésticas / C-S Sistemas de regulación y control automáticos

Electricidad (A-D-AE) / EZ Skopio eta instalazio elektrotknikak / GZ Erregulazio eta kontrol automatizatuak sistema

Madera y mueble / CM Fabricación industrial de carpintería y mueble (A-D) / CM Fabricación a medida e instalación de carpintería y mueble (A-D-AE) (M-T) / CS Desarrollo de productos de carpintería y mueble (A)

Egura eta atzema / EZ Azelerazio eta altueren kalkulazio industrialak (A-D) / EZ Azelerazioaren eta altueren reaktibo egonkortze fabrikazio eta instalazioak (A-D-AE)(3-A) / GZ Azelerazio eta altueren reaktibo garapena (A)

Sanidad (D-AE) / CS Higiene buccodental

Osasuna (D-AE) / GZ Aho eta hortzen higieena

Edificación y obra civil (A-D) / CS Desarrollo y aplicación de proyectos de construcción

Enalantza eta obra zibila (A-D) / GZ Erauzketako proiektuen garapena eta aplikazioak

Servicios socioculturales y a la comunidad / CM Atención socio-sanitaria (A-D) / CS Educación Infantil (D-AE)

Komunitatearen zerbitzu soziokulturalek / EZ Arreta sozi-sanitariak (A-D) / GZ Haur hezkuntza (D-AE)

Fabricación mecánica (Módulo A) / CS Desarrollo de proyectos mecánicos / CS Producción por mecanizado / CM Mecanizado / CM Joyería

Fabrikazio mekanikoa (A Eraketa) / GZ Proiektu mekanikoen garapena / GZ Mekanizazio tekniko produktiboa / EZ Mekanizazioa / EZ Situzioak

CS Prevención de riesgos profesionales (A-D)

GZ Lanbide arriskuaren prebentzioa (A-D)

Actividades físico-deportivas / CM Conducción de aicl en el medio natural (A-D) / CS Animación de actividades físicas y deportivas (A)

Gorputz eta kirol ekintzak / EZ Landu inguruneko giro gidaritza (A-D) / GZ Gorputz eta kirol ekintzen animazioa (A)

CS Diseño y aplicación de proyectos de construcción

Enalantza eta obra zibila (A-D) / GZ Erauzketako proiektuen garapena eta aplikazioak

easo
Formamos personas, Creamos profesionales

Edificio Donostia 1, 20011 Donostia
Tel: 943 43 14 21 / Fax: 943 43 14 22
e-mail: info@easo.es
www.easo.es

Legenda - Legenda
CM - Gaitu moduko
EZ - Erak. moduko zikloak
CS - Gaitu moduko zikloak
GZ - Gaitu moduko zikloak
AE - Oinartu gabeko zikloak moduko A

Z Zurea da hitza 

Atal honetan zuen kezak, iradokizunak, eskertzak... argitaratzen ditugu ostiralero. Horiek guri helarazteko hainbat bide dituzue: Interneten, 'www.tolosaldeko hitza.info' webguneko 'Zurea da hitza' atalean; e-mailaz, 'tolosaldean@tolosaldeko hitza.info' helbidean eta 943 655695 zenbakian.

**Ez kotxea marratu!
Kotxea ez!**

Hiru aste bete berri zituen. Nere lehen kotxea. Ilusio handiz aukeratua, konfiguraturia eta baita ordaindua ere. Nola arriskatu garbiketa tunel batean sartzea, karrozeria hainbeste marratu eta hondatzen dutela esaten dutelarik? Nik neuk eskuz egitea erabakitzen dut, kontu eta mimo guztiekin, eta Ibai-Ondo garbiketa lekura jotzen dut (Billabona eta Iruraren artekoa N-1ean). Txanpon bat, ur-zorrotada handia, xuabe-xuabe orraziarekin... kotxe guztia marratzen ari zaidala konturatzen naizen arte! Suminduta Ibai-Ondoko arduradunarengana jotzen dut baina berak zerikusirik ez duela dio. "Ez al zera zure instalazioen egoeraren kargu egiten?", galdeztzen diot. «Bai zera! Y una negra que te abanique nahi badezu ere!», erantzuten du.

Erreklamazio orria eskatzen diot. Hasiera batean sinatzeari uko egin arren, azkenean hala egiten du erdeinuzko eta lekuz kanpoko komentarioen artean. Kontsumitzaileen bulegoan azaltzen naiz. Orria jaso bai, baina gutxi asko egin dezaketela onartzen dute, erantzun baten bermerik gabe. Seguruarekin konpontzea gomendatzen didate. Ibai-Ondora bueltatzen naiz baina bere seguruko datuak ez ezatzen dizkit. Ertzaintzara erreklamatu eta laguntzerik ez dutela diote, seguruarekin konpon natzala. Zein ondo zainduta gauden kontsumitzaileak!

Hilabete eskas batekin, nere kotxea karrozeriara bueltatzen da, nik kreditu txartela atera beharra daukat frankizia ordaintzeko, eta Ibai-Ondon orraziak prest jarraitzen dute iristen den hurrengo kotxea marratzeko. Eta dagoeneko badakit bat baina gehiago izan direla.

Maria Larraz

Udako kanpaldia

Aurtengoan ere, Atsedena Taldeak kanpaldia prestatu du 6. mailatik 4. DBH bitarterainoko gazteentzat. Berau Uztailek 31an hasi eta Abuztuak 10ean amaituko da. Izen emateko telefono honetara deitu behar da arratsalde-



ko zortzietatik aurrera 680277411; apuntatzeko azken data Ekainak 6 izango da.

Atsedena taldea.

Laskoraingo mutilak txapeldun

Pasa den maiatzaren 24an Azpeitiko Kiroldegian Gipuzkoako Aretotako Txapelketako finala jokatu zen alebin kategorian, eta bertan leiatu dute Laskoraingo taldeak eta Astigarragako Ikastolako taldeak. Partida oso leiatua eta interesgarria izan da, bertan Laskoraingo mutilak 7-3 irabazi dute.

Laskorain Zorionak.
Zorionak ere txapeldunei.
Laskorain ikastola.

Maiatzaren 16 eta 28 eguneri buruz balorazioa

Maiatzaren 16an, abortuaren nazioarteko egunean eta 28an, emakumeon eskubide erreproduktiboaren nazioarteko egunean, emakumeon eskubideak aldarrikatzeko deia egiten du Tolosaldeko Bilgune Feministak. Izan ere, Euskal Herriko emakumeok gure eskubideak urratuak ditugu. Egunerokotasunak argi uzten duen bezala, gure gorputzaren inguruan ez dugu erabakiak libreak hartzeko aukerarik. Egunerokotasunak argi uzten duen bezala, gure gorputzaren inguruan ez dugu erabakiak libreak hartzeko aukerarik. Egunerokotasunak argi uzten duen bezala, gure gorputzaren inguruan ez dugu erabakiak libreak hartzeko aukerarik. Egunerokotasunak argi uzten duen bezala, gure gorputzaren inguruan ez dugu erabakiak libreak hartzeko aukerarik.

ko zortzietatik aurrera, aztertailatan sartu behar garen, azterketa ginekologiko eta mamografiak noiz eta zein baldintzatan egin behar ditugun; ama noiz, nola eta zergatik izan behar dugun, erditzea eta amatasuna nola bizi behar ditugun, menopausia nola gainditu... Gure gorputzaren nondik norakoa sistema patriarkal honek inposatzen digun ereduaren arabera da.

Honen aurrean bildu, eztabaiatu, planifikatu eta borrokatu egin behar dugu gure eskubideen alde.

Abortatzeko eskubidea. Azken hilabeteetan egondako gertakarien ondorioz emakumeok lortutako espazio txiki batzuk arriskuan daudela baieztatzen dugu. Gobernuetatik eta elizatik ofentsiba gogorriekin diote, gure gorputzaren inguruko erabakiak hartzeko ditugun aukera murriztak ere kendu nahi dizki-

gute. Atzerapausoak emateko nahi honen aurrean gure eskaera oso zehatza da: Euskal Herriko Emakumeok abortatzeko eskubidea izan nahi dugu eta «Abortua libre eta dohain!!!» oihukatzen jarraituko dugu.

Amatasuna nahi dugun moduan bizitzeko eta garatzeko eskubidea.

Gure gorputzaren inguruan erabakiak hartzeko aukerak izateak amatasuna nahi dugun bezala garatzea suposatzen du. Pertsona osoak eta libreak izan nahi dugu, gure osasunaren gainean ez dezala inork erabaki, ez politikoei, ez instituzioei, ezta inolako erlijio buruei ere. Aitzitik, sistema publikoak izan behar du gure osasun fisiko zein psikiko bermatzeko baldibideak eman behar diguna, gure gorputzaren gain geuk libreak erabakitzeko.

Tolosaldeko Bilgune Feminista.

B Blogteka **Tolosako Musika Banda Arimaz soka orkestrarekin batera 'Baldorba' interpretatzen**

Tolosako Musika Bandak eta Arimaz soka orkestrak (Udal Musika Eskolako ikasleen orkestra) elkarrekin kontzertua eskainiko dute lehen aldiz maiatzaren 31n, 19:00etan, Zerkausian, XIV. Musika astearren barruan.

Kontzertuaren lehen zatian kamera orkestrak hainbat gai interpretatuko ditu, ondoren Musika Bandak Leonard Bernstein-en

Slava, Leo Delibes-en *Coppelia* operaren fantasia eta Snijders-en *Tango para un torero* eskainiko ditu, eta azkenik, bi taldeek batera Pablo Sorozabalaren 'Katuska' zarzuelaren fantasia (Mariano San Miguelek moldatua) eta Benito Lertxundiren *Baldorba* (Oscar de Estebanek moldatua) interpretatuko dute. Zuzendariak Kepa Martinez de Albeniz eta Enrike Arostegi Eguzkiza izango dira.

Tolosako Musika Banda.

<http://www.tolosaldeko hitza.info/blogak/banda>

Udaberri tantak**» Kale kantoitik**

Joexemi Saizar

Aste honetan ere udaberriko tantak dastatu, sentitu, entzun, ikusi, usaindu eta ikutzeko aukera izan dugu. Bonberenean, Umama 2 kontzertuan, kontrabaxu bakarlararen erakustaldia- ren ondoren hasi ziren euri tantak, emanaldia bertan behera utziz, baina ordu arteko tantak (musika eta pintura) gogoan izango ditugu. Gazteek okupatu- tako etxea helduagook okupatu genuen kasu honetan, bertako ohikoak alde batera utziz.

Musikarekin jarraituz, Musika- ria astean bertako eta kanpoko interpreteek eskaintako doinuez gozatzeko aukera izaten ari gara igande bitarte. Bihar Musika Banda eta soka orkestraren *Baldorba* eta etzi ikasleen kalejira eta kontzertua entzuteko izango dugu.

Entzumenen alde batera utzi gabe, *Monologoka* ekimenari esker, hainbat bakarrizketa entzun ahal izan dugu asteburuan, denak goi mailakoak, baina baten bat aipatzekotan, Dani Perez katalanarekin gelditzen naiz.

Dastamenen alde usainenak ere izan dute protagonismoa udaberriaste honetan. Sukaldaritza turkiarra probatu ahal izan dute, herrialde hari buruzko astea dela eta. Bertako produktuko dastatzea ere ez dago gaizki. Batez ere egun gutxi barru itxiko den Amasako Arantzabi jatetxean baldin bada.

Ikusmenaren alorrean, zipritin ederrenak Alberto Iñurrategi eskaini dizkigu berriro ere, *Begiz begi* ikus-entzumeneko apartaren bitartez. Irudi ederrak paratu ditu atxabalarrak, Koldo Izaguirreren testu sakonen («bortitzak» hitza erabili zuen berak) laguntzarekin. Ikusteko! Eta ikustekoak izango dira bihar Oriain ibaian inguruko eta kanpoko ikasleak arranean. Ez galdu!

@ 'Zurea da hitza'. Zure herriaren inguruko albisteen baten berri eman, kezaren bat azaldu, gai bati buruzko esker ona azaldu, nahi baduzu sartu gure webgunean eta sartu *Zurea da hitza* atalean. Bertan duzu horretarako aukera.

www.tolosaldeko hitza.info

Mutil gazte bat behar da Asteasun tailer mekaniko baterako (18-22 urte).
Telefona: 652724169

E Elkarrizketa

OMAR FARUK TEKBILEK ▶ Musikaria

Musika ▶ Bihar kontzertua eskainiko artista turkiarrak, Leidor aretoan, 20:30ean. 'The tree of patience' azken laneko nahiz beste diskoetako abestiak joko ditu.

INIGO TERRADILLOS

Omar Faruk Tekbilek musikari turkiarrak kontzertua eskainiko du bihar, Leidor aretoan, 20:30ean (sarrerak Servikutxa, telekutxa, edota www.kutxa.net-en). Zuzeneko emanaldi hau Mundua Tolosan zirkloaren eta Turkiako Aste Kulturalaren baitan kokatzen da. Ekialde eta Mendebaldeko musika batzen ditu Farukek ezagutzen dituen hainbat ekialdeko eta mendebaldeko instrumentuak erabiliz. Artista turkiarra *The tree of patience* bere azken lanaren inguruan, bere musikaz, eta biharko kontzertuaz mintzatu da.

Nola deskribatuko zenuke zure musika?

Musika etnikoa da, baina baditu nahasketak mendebaldeko musikarekin, oso gutxi bada ere.

Turkiak eta New Yorkek zer ematen diote zure musikari?

Nire herriko, hau da, Turkiako musika da, batik bat, nire musika, %80a edo. Mendebaldeko *pozi* pixka bat ere badu, baina gehien bat musika tradizionala da, erabiltzen ditudan musika-tresnak ere, tradizionalak dira.

Musika tradizionalari nahasketak horiek egitea turkiarrei gustatzen al zaie?

Harrera ona du nire musikak han, gustatzen zaie. Baina ondo zaindu behar da, eta musika tradizionalan mantendu, eta pixkanaka gauza berriak sartu. Berrikuntza horiek gustatzen zaizkie herritarrei.

'The tree of patience' (Pazientziaren zuhaitza) diskoaren izena nondik dator?

Pazientziaren zuhaitza nire maisuak agertzen dira. Gorputza nire lehen maisuari dagokio. Lehen 10 urteak egin nituen berekin, eta asko ikasi nuen. «Beti jo behar duzu musika norbaiti edo zerbaiti zuzenduta, helburu bat izan behar duzuberburuan», zioen berak. Artista izatera iristeko bidea luzea eta neketsua izan da, eta pazientzia asko behar izaten da, baina orain zuhaitz hori ari da fruituak ematen. Horri egiten dio erreferentzia. **Zure anaia zuhaitza hazi arazten duen euria dela aipatu izan duzu.**



I. TERRADILLOS

«Malkoa erortzean edo oilo-ipurdia sentitzean, lortzen da musika egitea»

Ia egunero nago harremanetan berarekin, eta Internet bidez ere jotzen dut musika berak entzuteko. Beraz, nire euskarrietako bat da.

Flamenkoarekin ere nahasten duzu zure musika. Jose Antonio Rodriguezekin aurreko diskoan eta orain Enrique Morenterekin. Bide horretatik jarraitu behar al duzu?

Enrique Morenterekin lanean jarraitzea gustatuko litzaidake. Zuzenekoetan ere elkarrekin aritzea gustatuko litzaidake, baina oraindik ez dugu aukerarik izan. Nire musikak, nire lanek zutabe hauek izan dituzte: sufismoa, erromantizismoa eta irudimena. Azken honi, irudimenari dagokionez, beti egon

izan naiz artista askorekin lanean, beraz, beste kultura eta musikari irekia dago nire musika.

Turkiako musika tradizionalak flamenkoarekin lotura omen du.

Nik hala uste dut. Txikia nintzenetik flamenkoa entzuten nuenean zurrara handia sentitzen nuen, asko gustatu izan zait beti.

Biharko Leidorreko kontzertua nolakoa izango da?

Normalean nire disko guztietako abestien nahasketa prestatzen dut kontzertuetarako, nire ibilbidea nola izan den ikusteko. Azken laneko bi abesti joko ditut, eta beste diskoko abestiak ere izango dira. **Nola aldatu da zure musika denboran zehar?**

Sufia, erromantizismoa eta irudimena batzearen formatoa mantentzen dut. Hau *Suleyman the Magnificent* lehen diskoarekin lanean ari ginenean aurkitu genuen. Aldaketak sartzen ditugu, baina mantenduz, izan ere, disko harekin mundu berri bat aurkitu genuen. Musika sufia eta erlijiosotik ditu ukituak. Iman bat izango balitz bezala ere bada, jendea deika ariko balitz bezala, korana erreziatzen. Formatoa, beraz, lehen disko harekin deskubritu genuen, eta garatzen joan gara.

Zer da erlijioa zuretzat?

Maitasuna.

Eta musika?

Musika eta maitasuna gauza bera

dira niretzat. Maitasunak lasaitasuna ematen dizu, eta emozioak sentiarazten dizkizu. Musikak ere bai, izan ere, muga guztiak gainditzen ditu, maitasunak bezala. «Omar zuk bide berri bat topatu duzu, eta orain turkiar askok zure bidea jarraitzen dute. Uste dut bidea aldatzeko edo berritzeko garaia duzula». Hori esan zidan behin musikari lagun batek. Nik ezetz esan nion. Jotzen dudanean, nire sentimenduak eta emozioak zabaldu nahi ditut. Nire musika emozioetan oinarritzen da, beraz, malko bat erortzean edo oilo-ipurdia edo bestelako sentipenen bat, musika lortu dudala esan nahi du, hori da musika egitea.

Musika landu gabe ere bizi izan zara bizitzako etapa batean. Nola jasan zenuen?

Gogorra izan zen. Nire helburua New Yorkera joatea zen. Emaztearen aita musikaria da, eta esan zidan hara ez joateko hiri handia dela eta zanpatu egingo ninduela. Horrek eragin handia izan zuen nigan, eta zera galdetu nion neure buruari: «Nik zer egin nahi dut eszenatokian egon ala musika egin?». Orduan, musika egitea erabaki nuen. Musikari bezala bizitzea, ordea, oso zaila da, eta hainbat hilabatez fabrika batean aritu nintzen lanean makina handi batekin. Izugarriko zarata egiten zuen makina hark, eta lehenengo egunean beldurtu egin nintzen. Hurrengo egunean beste pentsakera batekin joan nintzen lanera, eta zarata hartan musika ikusten hasi nintzen. Han egon behar nintzela lanean onartu nuenean nire gorputza musika-tresna bat dela eta garrantzitsuena sentitzea dela konturatu nintzen. Hortik aurrera dena oso erraza izan zen, edozein musika dagoela ikusi nuen, gorputza sentitzen hasten da inguruan, uneoro, musika dagoelarik.

Zurekin batera hainbat musikaririk jotzen duzue.

Itamar Erez gitaran, Bahadır Senner kanun-ezan, Yannis Dimitriadis teklatuan, Paul Guerdurieran perkusioan eta Murat Tekbilek, nire semea, perkusioan. Guztiak maila handikoak.

Hurrengo proiekturik ba al duzu pentsatuta?

Badut proiektu bat, musika sufia egitea. Turkia, Siria eta Israelgo zonan egiten da tradizionalki, eta hango musikoeikin egingo nuke. Baita Andaluzia edota Marokokoekin ere.

Ezagutzen al duzu euskal musika?

Zerbait ezagutzen dut, eta asko gustatzen zait.

FUNERARIA VASCONGADA
EHORZKETAK

902 402 900
zerbitzu iraunkorra

BULEGOAK: Andoain · Donostia (Bellatokia) · Errenteria (Bellatokia) · Hernani (Bellatokia) · Lasarte (Bellatokia-Sulabea) · Pasala · Tolosa (Bellatokia)

1.200 euro banatuko ditu Igarondok

Ekonomia » Merkatarien elkarteak kanpaina berri bat jarri du martxan sanjoanetarako, erosketa txkeak zozketatuz.

Beraz, datorren astelehenean hasiko da promozio hau eta ekainaren 20ra bitartean irauango du. Epe horretan, elkarteko kide diren establezimenduek bere bezeroei txartel bana emango diete erosketa egiten duten bakoitzean.

Bezeroak, bere izena, herria eta telefonoa idatzi beharko ditu txartelan eta dendan aurkituko duen postontzi berezian utzi. Ekainaren 23an sarien zozketa egingo da, kide diren denda guztietan bildutako txartelen artean hiru aukeratu. Honenbestez, pertsona sarituek erosketa-txkeak beraiek nahi duten elkarteko denda edo saltokitan gastatu ahal izango dituzte.

ERREDAKZIOA

Laister iritsiko diren Tolosako festak direla eta, Igarondo Tolosako Merkatarien Elkarteak beste ekimen bat antolatu du. *San Joaneko Kanpaina* izenarekin. Bertan, elkarteko dendek bezeroen artean 1.200 euro banatuko dituzte. Horretarako, 600 euroko erosketa txke bat eta 300 euroko bi erosketa-txke zozketatuko dituzte.

Amalurreko azken saioa Cesar Barbaren eskutik

Gizartea » Eskandinaviatik zehar, bidaiaria bat nondik nora egin azalduko du, gida bat osatuz, bidaiari eta kazetariak.

Bidaiari eta kazetariak, Eskandinaviako txoko ikusgarrienen gida bat osatu, eta bidaiaria liburu bat balitz bezala erakutsiko du. Espainian argitaratu eman den bidaiaria gidaren bildumarik osoenaren editorea da Cesar Barba.

Izotz eta suzko lurraldea, antzinako kulturen sehaska eta berezko egoeran ageri den naturaren agertokia da Eskandinavia. Hori delaketa Europa hegoaldeko herritarrentzat jomuga erakargarria bihurtzen dute ezagun horiek guztiak.

ERREDAKZIOA

III. Amalur Jardunaldiak azken txanpara iritsi dira. Alberto Iñurategi, Kepa Fernandez de Larrea eta Ramon Larramendiren saioen ondoren, gaur Cesar Barbaren txanda izango da.

Hemen da berriro ere Amaroizko Antzerki Astea

Kultura » Hamar urte betetzen ditu aurturte jaialdiak; gaur, 'Puñetazo en la punta del cuchillo' izango da Leidorren.

ERREDAKZIOA

Amaroizko Antzerki Asteak hamar urte betetzen ditu aurturte. Hala, bere urteurrena ospatzeko asmoz, tolosar guztiak gonbidatzen dituzte datozen egunetan gauzatuko diren ekitaldietan parte hartzeko. «Hamar urte amesten» igarotuzte antolatzaileek, eta beraiekin batera ikuskizunekin gozatu duten guztiak, eta egun hauetan ere, horretan jarraituko dute.

Atzo, 18:00etan eman zioten hasiera aurtengo edizioari. Bertan, Gorringo taldeak *1728 animalia kontu* izeneko haurrentzako emanaldia eskaini zuen.

Gaurkoan, berriz, Leidor antzokia izango da aukeratutako eskenatokia. Hemen, Amaroizko Antzerki Artisauk *Puñetazo en la punta del cuchillo* lana taularatu dute. Azpimarratzekoa da antzerki taldekoek lan hau jaialdi honetan estreinatua izan dadin, egin duten lana. Augusto Boalen testua Laura Claudinok itzuli du eta May Gorostiaga arduratu da zuzendaria lanetaz. Sei aktorek hartzen dute parte saio honetan: Irantzu, Axi, Izaskun, Oihana eta Mikele. Ekitaldia, 22:30ean hasiko da.

Hurrengo saioa etzi izango da 20:00etan, Amaroizko Auzo-Etxe-



1728 animalia kontu izeneko emanaldia eskaini zute atzo Gorringoek. E. E.

an. Bertan, Pasaiaiko Antzerki taldekoek, *Tres en una* antzezina aurkeztuko dute.

Aste honetako emanaldiez gain, hurrengoan ere izango da zer ikusirik Amaroizko Antzerki Astearen baitan. Izan ere, datorren ostegunetan, hau da, ekainaren 5ean, 18:00etan hasita, Auzo-Etxean Kontu-Kantoiaren *Esaldi bat, esaldi bi...* Kontu-kontari! izango da ikusgai.

Hortik bi egunetara berriz, ekainaren 8an, Valenti Piñoten ikuskizun bat taularatu dute Amaroizko Auzo-Etxean. Ekitaldiari

20:00etan emango diete hasiera. Emanaldiaren izena *Una clase de Don Abili* da.

Antzerkiaren gain, zinea

Aurreko lehenetan aipatutako antzerki saioez gain, zine emanaldi berezi bat ere izango da aurtengo Antzerki Astea. Honela, datorren ostiralean, 22:30etik aurrera, Zineforumak antolatuta *Caldilejas* filma proiektatuko dute. Film hau Charles Chaplinen azken aurrena izan zen. 1952an ekoiztutako lan hau Lehendabiziko Mundu Gerra garaian, Londonen kokatzen da.

Roberto Jauregiren omenezko txapelketa jokatu dute bihar

Igeriketa » 170 igerilari lehiatuko dira denera; eskualdekoek emaitza onak lortzea espero dute gaurko norgehiagoketan.

ERREDAKZIOA

Urtero bezala, Usabalgo kiroldegian Roberto Jauregiren omenezko Hegats Igeriketa Txapelketa ospatuko da bihar. 170 igerilari lehiatuko dira bertan. Goiz eta arratsalde izango dira saioak, 10:30ean eta 16:30ean hasita.

Infantil eta kadete mailako igerilariak hartuko dute parte. Beraz, 12 eta 15 urte bitartekoek. Urtaineko, urazpiko eta eskafandrako probak izango dira.

Haibat tokitatik etorriko dira gaitzetxoak: Euskal Herriatik, Va-



Usabalen jokatu dute txapelketa. E. U.

lentzia, Galizia, Katalunia, Andaluzia, eta Maiorkatik (Balear uharteak, Herrialde Katalanak). Hauek, Espainiako txapelketetan

lehiatzen ari diren igerilari onenetakoak dira. Faboritotzat jotzen dira valentziarrak eta nafarrak. Baina eskualdeko kirolariak ere ondo entrenatzen ari dira eta emaitza onak lortzea espero dute.

Gainera ekainean Valentzian (Herrialde Katalanak) jokatu den Espainiko Txapelketarako entrenamendu oso ona izango da hau, han edukiko dituzten aurkariak etxean izango baitituzte. Euskadiko selekzioarekin parte hartuko duten tolosarrak 17 izango dira.

Tolosaldeko IKTko urpeko jardueren parte-hartzaileek eta antolatzaileek Tolosako Udalaren, Ibarrrako Udalaren Unipapelen, Kutzaren eta Igarondo dendarien elkartearen laguntza eskertzen dute, eta baita urterotan lanean aritzen diren boluntarioen laguntza ere.



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak-urteurrenak-eskertzak

HITZAK Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu
tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

E Elkarrizketa

AGUSTIN ARANBURU › Jubilatua



N. GARZIA

«Izugarrizko aldaketa izan dute 30 urtetan ihoteek»

Leitza » 'Leitzeko ihotek' izeneko DVDa jarri du salgai Agustín Aranburuk eta bertan, besteak beste, ihoteek 1973. urtetik aurrera izan duten bilakera ikus daiteke.

NAIARA GARZIA

Agustín Aranburuk (Leitza, 1945) *Leitzeko ihotek* izeneko DVDa jarri du salgai. Astebetetik gora darama salgai eta bertan inauteriak izan duten aldaketa jasotzeaz gain, atsareen txapelak ere nola egiten diren azaltzen du Aranburuk. DVDa Maimur edo Astiz liburu-dendetan eros daiteke.

Salmentak zer moduz doaz?

Oso ongi. Honez gero 80 ale inguru saldu ditut.

Ze urtetan hasten da grabazioa?

1973an edo 1974an. Orduan atera nintzen lehenengo aldiz grabatze-*ra, super ocho*-arekin. Zati hori mutua denez, nik hitz egiten dut. Urte horretan elurra egin zuen eta jende gutxiago atera ginen. He-

rrian ere egin zuen, baina baserrietan 15 zentimetro inguru egin zuen eta DVDan ikusten da elurretan gabiltzala, eskean. Orduan esaten dut nik nola ateratzen ginen 38-40 bat lagun, hortik gora ez baikin izaten, eta urte hartan elurra egin zuenez, nola 8 lagun gutxiago ateraginen. Orduan ez zen inor ateratzen behin ezkonduz gero, soinu-jotzailea ez bazen eta orain berriz, neskak, mutilak, ezkonduak... denak ateratzen dira.

Hori orduan asko aldatu da?

Izugarrizko aldaketa izandu dute 30 urtetan ihoteek, baita txapelaren erabilerak ere. Garai hartan ikusten da gehienak txapelarekin gabiltzala eta orain jada ez da apenas txapelik ikusten. Halere orain pixka bat gehixeago ikusten direla aipatzen dut.

Eskea luzeagoa izaten da orain?

Gaur egun eskea luzeagoa da eta baserri gutxiago bisitatzen dira. Lehenago sartu-atera bat izaten zen, dantzaldi bat eta aurrera jarraitzen genuen, baina orain zenbait etxetan edari asko ateratzen dizkizute, gero mamia, tartak, ka-

fea... Lehenago tortilla, txistorra, ardoa eta kafea ateratzen zizkizuten.

Bigarren zatia 2002. urtean hasten da.

Bai. 2002. urtetik aurrera gurdia ikusten dira, eta baserri baserri nolabiltzen diren. 1980. urtera arte ez zengurdirik izan.

Aldaketa onerako izandu da, txarrerako...?

Nikuste askoz ere umore hobearikin ibiltzen direla oraingo gazteak, ikustekoa da, denak barrez, festa egiten... Nire iruditua da baserri batetik bestera ibiltzen direla taberna batetik bestera ibiliko balira bezala, hemen tragoa egin, han bokadiloa, han pintxoa...

Atsauren berreskurapenarekin pozik zaude?

Bai. baina hurrengo urterako irrintzilaren bat edo beste atsauretuta ere beharko dugu, duela urte asko Altzu aldetik, orain fabrika dena, irrintzika etortzen omen ziren eta izugarrizko sarrera egiten omen zuten. Hurrengo urtean berriro aterako gara, aurrera atera behar dugu hori.

Erleta eskolan ere, 'Euskaraz bai'-ren alde

Leitza » Bertako ikasle eta irakasleek euskararekiko konpromisoa sinatu zuten, 'Euskaraz bai, eskolan eta nonahi!' lelopean.

zuten. Irakasleek ere konpromisoa sinatu zuten eta amaitzeko *Behin betiko* abestia abestu zuten.

Konpromisoa

Asteazkenean irakasleek geletan Kontseiluak ateratako orria irakurri zuten eta euskararen garapeneran inguruan mintzatu ziren. Orohar, ikasleekin 2 ideia nagusi azpimarratu zituzten: euskarak aurrera egin badu ere bere biziraupena denen ardura dela eta dakitenek hitz eginez eta ez dakitenek euskara ikasiz ziurtatuko dutela euskararen geroa.

Orain arte konpromisoak ondorengo 2 puntu hauek zituen: «Nire eguneroko bizitzan euskara ahalik eta modu txukunenean erabiliko dut» eta «gure artean beti euskaraz egiten dut». Aurten hirugarren puntu bat gehitu dute: «Euskaraz ez dakitenei euskaraz bizitzen lagunduko diet, haiekin ere euskaraz eginez».

ERREDAKZIOA

Duela aste pare bat Erleta eskolan *Euskaraz bai* hitzarmena sinatu zuten bai ikasleek bai irakasleek eta horretarako asteazkenean zehar gai honen inguruko zenbait gai jorrateaz gain, maiatzaren 16an ekitaldia antolatu zuten.

15:30ean jangelan elkartu ondoren, ekitaldiaren zergatia azaldu zuten eta aurreko txandan, konpromisoa sinatu zuteneko irudiak bota zituzten. Gero eszenatokiko oholztan konpromisoa sinatu zuten ikasleek, txikienetatik hasi eta handienara. Orokorrean denek banan bana sinatu bazuten ere, haur hezkuntzakoek gelaka sinatu



Euskaraz bai ekitaldiaren zenbait une. HITZA

txokoa **h**

kontzerturako sarrera pare bat zozketan

irabazlea:

Edurne Aiuso Apaolaza (Irura)

Maiatzak 31
Larunbata • 20:30ean
Tolosako Leidorren



HITZAren harpidedunentzat abantailak

sarrerak leihatilan bertan izango dituzu

AHT Gelditu! Elkarlanak bihar egingo den manifestaziorako deia egin du

Azpiegiturak » Gelditour ekimena bihar amaituko da Donostian, bertan 17:30ean manifestazio nazionala egingo dutelarik.

ASIER IMAZ

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanak prentsaurrekoa eskaini zuen Gelditour ekimenaren amaierarekin batera, bihar Donostian egingo diren ekitaldietan parte hartzeko eskatuz. Besteak beste, manifestazio nazionala egingo dute bertan 17:30ean Boulevardetik.

«RENFERi desobedientzia»

Donostiara joateko, 16:30ean Tolosatik irtengo den tren hartzeko deialdia egin du Elkarlanak. «RENFEk AHT diruz lagunduko duela salatuzko, desobedientzia zibila bultzatuko dugu bihar. Testu bat banatuko dugu eskualdeko



Tolosan AHTren aurka egindako manifestazio jendetsua. ESTI EZEZEA

geltoki guztietan, manifestaziora doazenez txartela ez ordaintzeko».

Gelditour ekimenaren amaiera

AHT Gelditu! Elkarlanaren esanetan, «gehiengo sozialak eta sindikalak behin eta berriz adierazi dute AHTren aurka daudela; egitasmo horrek dituen ondorio eko-

logiko, ekonomiko eta sozial larriengatik, baita informaziorik eta herritarren parte-hartzerik gabe garatu den proiektua delako». Halaber, «askotan eskatu du egitasmoa gelditzeko, egiazko informazio objektiboa zabalatzeko eta debate sozial sakona ireki dadila». Ildo honetan kokatu dute Gelditour ekimenaren sorrera: «maiatzaren

4tik aurrera AHTren egitasmoak kaltetuko lituzkeen herri eta eskualde guztiak zeharkatu dituen Gelditour ekimen ibiltariak, AHTk eragingo lituzkeen kalteen inguruko informazioa lau haizetara zabaldu du».

Euskal Herriko hainbat herritartik pasa ostean, gure eskualdean Tolosatik eta Zizurkiletik, bihar

Donostira iritsiko da Lapurditik barrena. Gelditourrek ibilbidea amaitzear duen honetan, AHTren arduradunek «ez entzunarena» egiten dutela salatu zuten Elkarlanetik: «egitasmoaren arduradunek ez entzunarena egiten segitzen dute AHT gelditzeko eskari herrikoiaurrean. Horrela, gogor salatzen dugu Madril eta Gasteizko gobernuek duela urte eta erdi Lukun (Araba) AHT eraikitzeak hasitako lanak Urbinara eta Goierriara hedatu izana. Berriz ere agerian gelditzen ari da, agintari entzungorrek, herriaren nahia- ren gainetik pasa, eta nola edo hala AHT eraikitzeak duten presak».

Bihar 17:30ean manifestazioa

Tolosaldeko AHT Gelditu! Elkarlanako kideek herritarrei deialdia luzatu diete: «aipatutako guztiagatik, bihar Donostian 17:30etan Boulevard-etik abiatuko den manifestazio nazionalera ahalik eta jende gehien biltzeko dei egiten diegu herritar guztiei». *AHT gelditu! Inposaketa gutxiago eta herri eztabaida gehiago!* lelopean egingo da biharko manifestazio nazionala. Horretaz gain egun guztian zehar ekitaldiak egingo dira.

«Baserria utzi eta eraikitzaile bezala hasi nahi ez baldin baduzu, AHTk ez dakar onurarik»

AITOR ARANBURU » Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna-ren kidea

AHTren eta nekazaritzaren inguruan hitz egin du Aitor Aranburu (Olaberria, 1976) EHNEren kidea. Denon bigai, denon bi ardura. **Zein da AHTren eragina baserrietan, lurretan, mendietan...?** Gipuzkoan 267 baserri izango dira afektatuak. 200 hektareatik gora izango dira zuzenean okupatuak. Gure ingurunea kontutan hartuta zati askotan tunelak egin beharko dira. Ondorioz, hondakin ugari sortuko dira eta hauek kudeatzeko zeharka lur asko okupatuko dira, hondakindegia, harrobi etabarretarako. Ikerketen arabera, honelako azpiegiturak okupazio gehiago sortzen dute eta 200 hektarea horiek baino 19 aldiz handiagoa izan liteke galduko den lurraldea.

Trenbideaz gain, inguruan ziuertasun eremua edukiko du AHTk.

Guk kezka handiarekin ikusten dugu gai hau; trenbideaz gain, hasi 15-20 metrotik eta 50-70 metro bitarteko zabalera sare batzuekin itxita joango baita. Honek lurraldea nolabait erditik moztu eta bitan zatituko du. Baserri askotan lurrrak trenbidearen alde batean egingo dira eta, besteak beste, aldean; pentsa ganadua batetik bestera eramateko edo bertara iristeko sortuko dituen muga eta oztopoak. Kaltea kaltearen gainean. **Zundaketa lanen inguruan hainbat nekazariren salaketak egon dira Zizurkilen eta Tolosan.** Zundaketen aurrean baserriarrek egoera informazio falta han-

diarekin bizi du. Kasu askotan oraindik ez dakite nondik pasako litzatekeen tren. Bestalde, proiektua interes orokorreko deklaratzeko baldin badute, beste proiektu askorekin gertatzen den bezala, legearen aurrean babesik gabe geratzen zara. Proiektua bultzatzen ari direnak aurrerakako ihesean dabilta; kasu askotan badakigu hemen inguruan badabil-tzala: bideak ingongo baimenik gabe erabiltzen, baserriarri ezer esan gabe, lanean ari den enpresa zein den jakin gabe,.... izugarriko babes falta dago maila horretan baserriarren ikuspuntutik. Horretaz gain, boterea gehiegikeriaz erabiltzen ari direla ere esango nuke, txantaiaren mugara iritsiz. Espropiazio fasera iritsi baino lehen, lurrrak uzteko firma dezaten esaten die baserriarrei, ondoren diru horren erdia edo gutxiago jasoko dutela esanaz. Hau guztia erabat salagarria da.

Zein da EHNEren papera honetan guztietan?

Ahal den neurrian informazioa ematen gabilta. Gero AHT Gelditu! Elkarlana taldean parte hartzen dugu, baina lan berezia afektatuekin daukagu. Kontutan eduki behar da badirela nekazaritzan ak-tibitatearik ez duten afektatuak. Baina oro har, juridikoki bidea oso mugatua dela ikusten ari gara. Lehen esan bezala, interes orokorreko deklaratzeko baldin badute



ASIER IMAZ

proiektu bat, horri aurre egiteko baliabiderik gabe geratzen zara. **AHT bultzatzen dutenek onur-taz hitz egiten dute. Lehen sektoreari begira zeintzuk dira onura horiek?**

Lehen sektoreari begira ezinezkoa da onura batean pentsatzea. Baserriar bezala garbi dago ez duela inongo onurarikartzen, azkenean lurra okupatzen duelako, lurraldea bitan zatitzen duelako eta-tu! Elkarlana taldean parte hartzen dugu, baina lan berezia afektatuekin daukagu. Kontutan eduki behar da badirela nekazaritzan ak-tibitatearik ez duten afektatuak. Baina oro har, juridikoki bidea oso mugatua dela ikusten ari gara. Lehen esan bezala, interes orokorreko deklaratzeko baldin badute

rengo mantenurako ere. Zenbat dirutaz hitz egiten ari garen ikusteko, adibide bat jarriko dut: Eusko Jaurlaritzaren Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura Departamentuaren 60 urteko gorako aurrekontua gastatuko da proiektu honetan. Kontutan eduki behar da diru hori gutxi batzuen negozioa egiteko dela.

Babes eza, informazio eza,.... aipatu dituzu. Zer egin dezake horien aurrean EHNEK?

Gure ustez gai hau hasiera-hasi-eratik ezkutuan eman nahi izan da. Obrak hasi zirenean ere ez zen inaugurazio ekitaldirik egin eta hori niretzat oso esangarria da; beti gauza horiek saltzen ibiltzen direlako. Euskal Herriaren sekula egin den azpiegitura handiena izateko oso informazio gutxi dago. Alde hortatik planteatu zen Gelditour-en apustua, proiektu honen aurrean iritzi bat formatzeko informazioa edukitzea beharrezkoa ikusten genuelako. Administrazioetatik propio ez baita informazio objektiboki kaleratu. **Zeintzuk dira epe motzera egiten dituzten deialdiak?**

Guretzat apustu oso handia izan da bihar Donostian egingo den manifestazio nazionala. Espero dugu milaka pertsona auzaltea eta momentu honetan indar guztiak hor zentratuta dauzkagu. Gero EHNE bezala, bai AHT eta lurren arazoarekin baina baita ere sektoreak bizi dituen beste arazoekin; kostuen igoera, burakrozia geroz eta handiagoa etabarrekintan lotuta ekainaren 8an, igandean, 12:00etan Donostian beste manifestazio bat egingo dugu. Baserriarrez gain kaletarrak ere bertan izatea espero dugu, baserriaren egoera denon arazoa ere badelako.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Errotulatuzailea.** Pertsona bat behar da errotulazio enpresa batean lan egiteko. 943 69 02 94.
■ **Iturgina.** Iturgin lanetarako pertsona behar dugu. 685 22 70 58.

GALDUTAKOAK

■ **Txakurra.** Txakur bat agertu da Olexan. Tamainaertaina, marroi kolorea eta hanketan ile zuria dugu. 943 68 20 35.
■ **Katua.** Katu pertsa ilegorria,

emea eta 10 hilabetekoa galdu zen Leitzaun lurrunbetearen. Aurkitu ezkerreko deitu telefonoz: 656 71 94 23 (Iñaki).

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai Tolosa-ko Alde Zaharrean. Merkea. Obrak egin behar da. Interesatuek deitu: 657 23 00 11/634 91 94 82.
■ **Garajea.** Alegiko kalean, 25 m²ko garaje itxia, gainean en-treplanta dauka. 606 80 22 14.



Anoetako Arraunlarietako kideak San Joan jaietako estropadetarako entrenatzen Adunako ontziratzeko lekuaren ondoan. I. GARCIA

Anoetan arraunak berriro indarra hartu du. Anoetako Arraunlariak taldea sortu dute eta bihar egingo dute jendaurreko aurkezpena. Tolosako San Joanetako estropadan lehiatuko dira lehenengo aldiz.

Anoetan arrauna berpiztuta

IMANOL GARCIA

Anoetan gazte koadrila bat etorri zitzaion Manu Luluagari. «Ni arraunean ibilita nengoan eta arraunean egiterik bazegoen galdetzer a etorri ziren». Luluagak Tolosako TAKen ezagunak ditu eta haiengana eraman zituen. «Han hasi ziren ibiltzen eta han ikasi zuten Joexan Zubiriarekin. Material aldeetik berak dena utzi zigun eta oso ondo portatu dira gurekin eta eskerrak ematerik besterik ez dugu».

Hortik etorri zen herriko taldea sortzeko asmoa. Materiala behar zuten eta horrela atek joz beharrezkoa osatzen joan dira. Batela Anoetako Udalak jarri du. Arraunak Anoeta Karrozeriak ipini ditu. Jantziak Zubietarra Garraioak eskutik izan dituzte. Calcosa galdaragintzak jarritako diruarekin Jose Ramon Errazkin *Argaiak* atoa egin du. Eugenio Iturriozek ere beste batel bat eman die eta Karlos Intzak eta Joxe Mari Urkolak ere lagundu diete. «Babesle eta laguntzaile guzti hauengatik posible izan da taldea ateratzea», zehazten du taldeko arduradunetako bat den Luluagak.

Anoetako Arraunlariak izena jarri diote taldeari. Batelarentzako, berriz, Osinzulo izena aukeratu dute. «Alkizatik jaisten den erreka bat pasatzen da Anoetatik», esplikatu du Luluagak. «Presamoduko bat dago eta bertan udan herrikoak bainu bat hartzera joaten

» DATUAK

Taldea

- **Arraunlariak.** Aitor Urkola (patroia), Beñat Luluaga (hankeko), Endika Esnaola (biko), Iñaki Intza (hiruko), Aitzol Esnaola (lauko), Naroa Urkola, Josu Agirrezabala eta Ugaitz Mendizabal.
- **Arduradunak.** Manu Luluaga eta Enrike Esnaola.
- **Presatzaileak.** Eugenio Iturrioz eta Joxean Zubiria.

dira. Presa horrek Osinzulo izena du eta izen horixe jartzea otu zitzaigun».

«Arraunak harrapatzen zaitu»

Arraunerako ohitura handia izan da Anoetan. «Arraunlari onak izan dira. Guadalupe izenarekin ateratzen ziren herrikoak eta Irurakoak», gogoratzen du Luluagak. Orain 30 urte baino gehiagoko kontuak dira horiek. «Gero Tolosako estropadak pikutara joan ziren, batetik presajaitsi zutelako eta bestetik kanpotik jendea etortzen hasi zelako eta horrek bertako elkarteen arteko grina hori galdu egin zelako».

Orain TAKek estropadak berreskuratu ditu eta ikusi besterik ez dago zenbat lagun biltzen diren egun arraunaren munduaren inguruan. «Arraunak harrapatu egingo du. Kanpotik ematen du oso gogorra dela, baina jartzen zarenean, gutziz harrapatzen zaitu». Au-

Aurkezpen ofiziala

■ **Ekitaldia.** Bihar, 18:00etan, Anoetako sarreran elkartuko dira arraunlariak eta taldea babestu duten erakunde eta enpresetako ordezkariak aurkezpena egiteko. Ondoren, kalejira egingo dute herrian zehar. Hori eta gero taldeko kideak zein babesleak Txaramako elkarte batera joango dira bertan elkarrekin afaltzeko.

rruna oso kirol osoa dela gaineratzen du Luluagak: «Beso, gerri, hanka... denak mugitzen dituzu. Eta ez da bortitza, ez da elkarri kolpeak ematen».

Garai bateko zaletasuna berreskuratu nahi dute. Orduan arraunlariak San Joanetan lehiatzen ziren eta gero Orioko taldean aritzen ziren, inguru honetako arraunlari talde hori tokatzen zitzaielako. Zaletasuna, baina, San Joanetako estropadek sortzen zuten. «Lehia hori izaten zen, lehia sana. Arraunlari denak lagunak ginen, baina behin uretara sartzen ginean lagunak ahazten ziren», dio Luluagak.

Finalerako sailkatzea helburu

Talde bezala, Anoetako Arraunlariak lehenengo lehiaketa aurtengo San Joanetako estropadak izango dituzte. TAKekin Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketan izan dira eta «oso gustura» aritu dira, baina

orain gogoz daude talde bezala lehiatzeko. Finalerako sailkatzea dute helburu. Hamaika taldetik sei pasatuko dira finalera eta aurtengoz bere asmoa hori da. «Gero finalean sartzen bagara, ikusiko dugu zer gertatzen den».

Luluagari poza ematen diona herrian ikusten duen giroa da. «Ikusten dut herrian ere giroa sortzen ari dela eta jendearen artean zabalitzen ari dela talde bat dugula berriro», dio. «Badakigu Tolosara jende asko joango dela estropadara, ohitura handia dago eta».

Zaletasun berri horri jarraipena emateko Anoetan bertan ibaian 300 bat metro erabili omen daitezke arraunean ibiltzeko eta ontziratzeko leku bat jartzeko asmoa dute. «Gazteak eta haurrek bertan ibili eta ikasteko aukera izan dezaten», azaltzen du taldeko arduradunak.

Bitartean Adunako ontziratzeko lekuan aritzen dira entrenatzen, Gazteluko taldearekin batera. «Tolosan ere gustura ibiltzen gara, baina jende asko egoten da eta ibaiak ez du han hain besteko luzera arraunean aritzeko», zehazten du Luluagak.

Zortzi arraunlari, patroia barne, daude Anoetako Arraunlarietan. Denak herrikoak dira. Patroia da gazteena, 14 urterekin, eta arraunlari zaharrenak 26 urte ditu. Jendaurreko aurkezpen ofiziala bihar arratsaldean egingo dute herrian bertan.

Laburrak

Azken ostiraleko elkarretaraztea, 20:30ean

ASTEASU ● Gaurtik aurrera hilabete bukaerako presoan eskubideen aldeko elkarretaraztearen ordua aldatu egingo da Asteasu. Lehen 20:00etan egiten bazuten, orain 20:30ean egiten hasiko dira.

Maiatzeko meza nagusia Izaskun baselizan, bihar

IBARRA ● Duela 60 urte baino gehiago da maiatzeko hilean egunero 06:45ean jende multzoa, aurtun 80 lagun inguru, biltzen dela Tolosatik, Ibarrik eta inguruetatik Izaskungo santutegian eukaristia ospatzera eta Izaskungo Amari otowitz egitera. Maiatzeko azken igandean meza nagusia izan ohi da, baina aurtun Corpus Christi jaia zenez, bihar, hilaren 31n, izango da, 11:00etan, Santa Maria parrokiako koruarekin. Bihar ere, beste egunetan bezala, 06:45eko eukaristia izango da.

Atari Bizi lehiaketa antolatu du Udalak

VILLABONA ● Udalak Atari Bizi lehiaketa jarri du abian: atari eta balkoi dotoreenak sarituko dituen. Sari banaketa Santio jaietan egingo da. Lehiaketa sustatu asmoz eta herritarren artean balkoi eta atariak atontzeko gogoaz pizteko, bihar, Berdura Plazan lore banaketa bat egingo da dohanik, 11:30etan. Gerturatzen den orori lore landare bat emango zaio, baita lehiaketari buruzko informazioa ere. 800 lore landare banatuko dira.

Danborradaren entseguak laster hasiko dira

VILLABONA ● Santio Jaietan aurtun Konpartsa Herrikoa egingo dute uztailaren 27an. Konpartsaen atal bat danborradak osatuko du eta izen-ematea irekia dago ekainaren 7a arte. Asteazkenetan, 21:00etan, Txermingo Ikastolako ganbaran, egingo diren entseguak Agustin Laskurainek zuzenduko ditu eta ekainaren 4ean hasiko dira. Izena emateko Agustin Laskurainekin harremanetan jarri edo deitu 660 13 93 80 zenbakira. Entseguan bertan ere izango da izena emateko aukera. 1993an edo lehenago jaiotakoak parte har dezakete bertan. Bestalde, konpartsa pertsonaia izateko aukera ere zabalik dago eta horretarako ez dago baldintzarik adinaren aldetik.

IV. Kirol Topaketa egingo dute, bihar, pilotalekuan

ZIZURKIL ● IV. Kirol Topaketa antolatu du bihar Aiztondo Zerbitzuen Mankomunitateak Zizurkil Goian. Lau taldetan banatuko dira: 3-5 urtekoak, 6-7 urtekoak, 8-9 urtekoak eta 10-11 urtekoak. Ekitaldia 16:00etan hasiko da eta pilotalekuan egingo dute.



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetaidea: 687 410 022. anoetaidea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarraldea: 687 410 032. ibarraldea@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzaldea: 687 410 118. leitzaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Antzerkia

■ **Tolosa.** Amarozko antzerki ikasleek May Gorostiagaren *Puñetazo en la punta del cuchillo* antzezlan eskainiko du Leidorren 22:30ean.

Jaiak

■ **Txarama.** 20:30ean suziria eta ondoren barrikotea plazan, bakoitzak afaltzeko gustoko duena etxetik eramanda.

Hitzaldiak

■ **Tolosa.** Cesar Barba editoreak *Bidaia gauerdiko eguzkiko estatuetatik* hitzaldia emango du Kultur Etxean 20:00etan, Amalur jardundien baitan.

Musika

■ **Ibarra.** Ezinean eta Gualitxo taldeak Gaztetxean, 22:00etan.
■ **Tolosa.** Jamix taldearen kontzertua Bonberenean 22:30ean.
■ **Tolosa.** Gasteizko Big Band Berriren kontzertua Udal Musika Eskolan 20:30ean, XIV. Musikariaren barruan.
■ **Zizurkil.** Mikel Markezzen kontzertua El Salvadorreko Segundo Montes komunitatearen alde Atxulondo kultur etxean 20:00etan. Sarrera, 5 euro.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Bronte, C. Korreo kalea, 10. 943 676013.
■ **Leitza.** Campos, M.Z. Elbarren, 52. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik.

Bertso eta ipuin sariak banatuta

VILLABONA ● Udalak antolatutako bertso eta ipuin lehiaketaren sari banaketa egin zuten atzo Gurea aretoan. LH3 eta 4ko mailan, bertsoetan hiru lehenak Garazi Urkola (Fleming), Ander Iparragirre eta Ibon Martinez (Fleming) izan ziren, eta ipuinetan Ekain Agote (Ikastola), Eider Arruabarrena (Ikastola) eta Telmo Gartzia (Fleming). LH5 eta 6 mailan, bertsoetan Xabier San Sebastian (Ikastola), Leire Olazabal eta Unai Beldarraín (Ikastola) izan ziren eta ipuinetan Naroa Amondarain (Ikastola), Miriam Arquillo de la Iglesia (Ikastola) eta Nerea Arregi (Fleming). DBH1 eta 2 mailetan, bertsoetan Ane Urkia (Ernio-bea), Izaor Eraunzetamurgil (Ernio-bea) eta Igor Mujika izan ziren eta aipamen berezia Haritz Mujikak (Ernio-bea) lortu zuen, eta ipuinetan Elena Gabirondo (Ikastola), Jon Fernandez (Ernio-bea) eta Unai Urkola (Ikastola) izan ziren. DBHko 3 eta 4 mailer dagokionez, bertsoetan Unai Mendizabal (Ernio-bea), Irati Olazabal (Ernio-bea) eta Onintza Gorostidi (Ernio-bea), eta ipuinetan Maitane Torres (Ernio-bea), Izarne Maiz (Ikastola) eta Udane Ibarzabal (Ernio-bea) izan ziren. Sarien berri ematen bertsoekin Amaia Agirre, Oihana Iguaran eta Haritz Mujika aritu ziren. I. GARCIA



TOLOSALDEA GOIMAILAKO L.H. INSTITUTUA



ziklo guztiak
euskaraz

Zure etorkizuna ziurtatzen dugu!

ERDI-MAILAKO ZIKLOAK

➤ **Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoak**

➤ **Mekanizazioa**

➤ **Soldadura eta Galdaragintza**

943 65 11 47 • www.tolosaldea.com

Mugikorrean informazio gehiago
Mezu bat bidali: **TOLOSALDEA** idatziz 5533ra